




## Zertan datza inpaktua jaso eta berehalako faseko Esku-hartze Psikosoziala?

Biktimekiko esku-hartzeak kontuan hartu behar du, lehenik eta behin, jende gehiena gai dela bizitzan agertzen zaizkion arazoei sufrimendu handiagoarekin edo txikiagoarekin, baina zailtasunik gabe aurre egiteko. Hala ere, larrialdia berezia eta kaltea larria denean, baliteke ohiko mekanismoak eraginkorrak ez izatea eta pertsona antsietate- eta nahasmendu-egoera batean geratzea. Kasu horretan, komeni da lehenbait lehen autonomia-maila berreskuratzeko laguntza jasotzea. Laguntza hori esku-hartze psikosozialaren parte da.

Esku-hartze Psikosoziala pertsona bati krisi edo gertaera traumatiko bati aurre egiten laguntzen dion laguntza emozionaleko prozesu bat dela esan daiteke, eta ondorio negatiboen probabilitatea txikiagoa eta garapen pertsonalaren probabilitatea handiagoa izatea du helburu. Laguntza emozional hori laburra eta berehalakoa da, eta bizirik irteten direnek erreakzio goiztiar ugari izango dituztela (fisikoak, psikologikoak,

portaerari lotutakoak eta abar) eta erreakzio horietako batzuek gertaerari aurre egiteko eta egoera berrira egokitze gaitasuna oztopa dezaketela du oinarri. Izan ere, konplexutasun handiagoko edo txikiagoko erantzun bat behar duten egoera guztiek emozionalki kaltetutako pertsonen elkarrekin dute ezaugarri bereizgarri.

Erreskate-taldeek horrelako egoeretan egin beharreko jardunak eraginkorrak izateko, beharrezkoa da egoera horien eta sortzen dituen arriskuaren berri izatea, eta funtsean pertsona guztiak egoera kritiko batek eraginpean hartutako pertsona baten sufrimendua arintzeko gai bagara ere, denok ez dugu elkarrekin horren bidez sor daitezkeen esperientzia jakin horiei aurre egiteko gaitasun bera. Nolanahi ere, prestateta-maila handiagoko profesional espezializatuak behar dira erreakzioak denborarekin okerrera egiten duen edota inpaktua jaso eta berehalako fasean konplexuagoa den kasuetan.